

## **Txostena, Euskara Zerbitzuko itzulpen eta interpretazio atalaren<sup>1</sup> 2017. urteko jarduerak biltzen dituen.**

1. Aurkezpena	
2. 2017. urtean egindako jardueren laburpena	
2.1 Mezu elektronikoak	
2.2 Itzulpen lanak	
2.2.1 Batez besteko denbora	
2.3 Interpretazio lanak	
3. Kostu ekonomikoak	
3.1 Itzulpenen kostu ekonomikoak	
3.2 Interpretazioen kostu ekonomikoak	
4. Laburpena	
5. Adierazleen bilakabidea	
5.1 Gastu ekonomikoak	

### **1. Aurkezpena**

Itzulpen eta Interpretazio Atala pertsona hauek osatzen dute: koordinatzaile batek, bost itzultzaile-interpretetek eta itzultzaile batek. Atalaren betebeharrak unibertsitateko dokumentu administratiboak itzuli eta bilera ofizialetan aldibereko interpretazioa egitea dira.

Lan bolumena dela eta, EHUz kanpoko hiru enpresa homologatuta daude zerbitzuak bere gain hartu ezin dituen itzulpenak egiteko.

## **Informe de la actividad del año 2017 de la sección de traducción-interpretación<sup>2</sup> del Servicio de Euskera.**

1. Presentación	1
2. Resumen actividades año 2017	2
2.1 Correos electrónicos	2
2.2 Traducción de documentos	4
2.2.1 Tiempo medio	8
2.3 Trabajos de interpretación	8
3. Costes económicos	11
3.1 Coste de las traducciones	11
3.2 Coste de las interpretaciones	11
4. Resumen	11
5. Evolución de los indicadores	11
5.1 Gastos económicos	16

### **1. Presentación**

El servicio de traducción-interpretación está formado por un coordinador, cinco traductoras/traductores-intérpretes y un traductor. Los fines principales del servicio consisten en la traducción de documentos administrativos universitarios y en la interpretación simultánea en reuniones oficiales.

Dado el volumen de trabajo existente, se cuenta con tres empresas externas homologadas para la realización de traducciones que no puede asumir el Servicio.

<sup>1</sup> Administrazioaren aurrean, dagoen zerbitzu bakarra Euskara Zerbitzua da. Zerbitzuan badago ondo definituriko lantalde bat, Itzulpen eta Interpretazio Atala deitzen duguna, eta eskuartean duzun txostena lantalde honen jardueri buruzkoa da. Txostenean izen biak erabiliko dira, atalarena zein zerbitzuarena.

<sup>2</sup> A nivel administrativo, el único servicio existente es el Servicio de Euskera. Dentro del Servicio hay un grupo de trabajo bien definido, que podemos llamar Unidad de Traducción e Interpretación a falta de otro nombre mejor, y el presente informe es acerca de las actividades de este grupo de trabajo. En el informe se usarán los dos nombres, tanto servicio como unidad.

Txosten honetan Itzulpen eta Interpretazio Atalak 2017. urtean egindako lanen laburpena egiten da.

## **2. 2017. urtean egindako jardueren laburpena**

### 2.1 Mezu elektronikoa

Erabiltzaileekin harreman guztiak mezu elektronikoen bidez egiten direnez, garrantzitsua da horiek zenbatzea, horrela ikuspegi ona edukiko dugu zerbitzuaren erabilerari buruz.

Oharrak:

- Grafikoetan itzulpenarekin zerikusia duten mezuak besterik ez da agertzen. Interpretazioko mezuak (**581**, 2016an baino % 11,51 gehiago) ez dira sartu.
- Heldutako mezuen artean bidalitakoen irakurtze agiriak ere sartuta daude. Agiri horiek oso baliagarriak ditugu eskatzaileek gure mezuak irakurtzen dituztela ziurtatzeko. Hala ere, hau ez da beti horrela gertatzen, erabiltzaileen eskuetan dagoelako irakurtze agiria bidaltzea ala ez.

Hona zer aurkezten dugun: mezuak hileka, laburpena kopuru totalekin eta mezuen batez besteko kopurua lan eguneko eta hileko.

El presente informe es un resumen de las actividades realizadas por la Unidad de Traducción e Interpretación durante 2017.

## **2. Resumen de las actividades desarrolladas durante el año 2017.**

### 2.1 Correos electrónicos


Dado que toda la comunicación con los usuarios se realiza mediante correo electrónico, sus cifras nos ofrecen una buena idea del trabajo del servicio.

Notas:

- En estas gráficas están consignados únicamente los mensajes relacionados con la traducción, no los de interpretación. Estos últimos suman **581**, un 11,51% más que en 2016.
- Dentro de los mensajes recibidos se cuentan también los acuses de recibo de los correos enviados. Estos acuses son muy útiles para asegurarnos de que los destinatarios han leído nuestros correos. Sin embargo, no siempre los recibimos, ya que su envío queda en manos de los usuarios.


Presentamos la distribución de los correos por meses, el resumen con el total y la media de correos por día laborable y por meses.


## Mezu elektronikoak 2017



Heldutakoak	1277	1352	1460	916	1433	1466	1092	405	820	1376	1409	926
Bidalitakoak	823	835	824	513	780	691	717	129	650	761	760	472
Guztira	2100	2187	2284	1429	2213	2157	1809	534	1470	2137	2169	1398

## Laburpena 2017





2016. urtearekin konparatuz, 627 mezu gutxiago heldu dira (% 4,3 gutxiago) eta 71 mezu gehiago bidali dira (aldaketarik ez dela izan jo daiteke). Heldutakoak eta bidalitakoak kopuruak gehituz, 556 mezu gutxiago zenbatu dira (% 2,4 gutxiago).

Mezu kopuruaren batez bestekoa (BB zutabea) azpimarratzekoa da. Mezu horiek guztiak irakurri (edo idatzi), prozesatu eta artxibatu behar direla kontuan hartu behar dugu. Irakurtze-agirien jarraipena ere egin behar da. Eta horrek guztiak ordu asko eramaten ditu.

## 2.2 Dokumentuen itzulpenak

Jasotzen diren dokumentuak zerbitzuan bertan itzultzen dira edo homologatutako kanpoko hiru enpresetako bati bidaltzen zaizkio.

- Jaso diren eskaera guztien artean, **24** ez dira egin (jaso direnen % 0,5 da), 2016an baino 12 gutxiago. Horietatik, 11 atzera bota dira ez zirelako lan administratiboak; 1, erdaraz aurkeztutako idazkien

Respecto a 2016, se han recibido 627 mensajes menos (un 4,3% menos) y se han enviado 71 mensajes más (podemos considerarlo un número equivalente). La suma total de los enviados y recibidos ha disminuido en 556 (un 2,4% menos).

El número medio de correos es considerable (columna BB), si pensamos que todos estos mensajes hay que leerlos, o escribirlos, procesarlos y archivarlos. Incluso hay que hacer un seguimiento de los acuses de lectura. Y tampoco es desdeñable el número de horas que conllevan todos los procesos.

## 2.2 Traducción de documentos

Los documentos que se reciben se traducen en la propia unidad o se envían a cualquiera de las tres empresas externas homologadas.

- De todas las peticiones recibidas, no se han llevado a cabo **24** (el 0,5 % de las recibidas), 12 menos que en 2016. De ellas, 11 han sido rechazadas por no ser trabajos administrativos, 1 por ser respuestas a escritos presentados únicamente en

erantzuna zelako eta beste 12 arrazoi desberdinengatik.

- Datuak ondo interpretatzeko, ohar garrantzitsu hauek kontuan hartu behar dira:

- Edozein lanen gutxieneko luzera orrialde bat da, hori baita kanpoko enpresek fakturatzeko erabiltzen duten irizpidea.
- Orrialde estandar batek itzultako 1.800 karaktere dituela jotzen da, zuriuneak barne.
- Kanpoko enpresek itzuli dituzten dokumentu eta orrialde kopuruak zehatzak dira, horien arabera fakturatzeko dutelako. Zerbitzuak itzuli duen dokumentu kopurua ere zehatza da baina zerbitzuak itzultako orrialde kopurua ez da hain zehatza, ez garelako ibiltzen itzultako karaktere kopurua zenbatzen. Dokumentua luzea bada, estimazio bat egiten da. Hala ere, esperientziak irakatsita, uste dugu zifra hori nahiko zehatza dela eta ontzat har genezakeela.

OHARRA: Grafikoetan "Euze" agertzen da eta "Euskara Zerbitzua" esan nahi du.


castellano y otras 12 por diferentes razones.

- Para una correcta interpretación de los datos, es muy importante tener en cuenta las siguientes notas:


- Cualquier trabajo tiene una extensión mínima de una página. Ese es el criterio de facturación de las empresas externas y el que hemos seguido para contabilizar todos los trabajos.
- Se considera una página estándar 1.800 caracteres traducidos, incluidos los espacios en blanco.
- Los datos relativos al número de documentos y páginas de las empresas externas son exactos, ya que facturan en base a ellos. Los de trabajos realizados en el servicio también lo son, ya que sabemos exactamente el número de documentos que recibimos. Pero el número de páginas que el servicio traduce es algo aproximado debido a que, al hacerse calculando el número de caracteres, es costoso y difícil de concretar de manera rápida en la mayoría de los casos. Aunque se hace un poco "a ojo", consideramos buenas estas cifras.

NOTA: En los gráficos aparece "Euze" que quiere decir Euskara Zerbitzua.


## Dokumentu kopurua 2017




## Dokumentu kopurua guztira 2017



## Orrialde kopurua 2017





- 2016. urtearekin konparatuz, 115 dokumentu gutxiago jaso dira (% 3 egin du behera).

5.361 dokumentuetatik, Zerbitzuan 3.694 itzuli dira (% 68,9).

Kanpoan 1.667 dokumentu itzuli dira (% 31,1a).

- Orrialde kopuruari dagokionez, 2017an 13.451,5 itzuli ziren, hau da, 2016an baino 276,1 gutxiago.

Zerbitzuan 5.980 orrialde itzuli ziren (guztiaren % 44,45), 2016an baino 46 gehiago. Kanpoan berriz, 7.471,5 orrialde itzuli ziren (guztiaren % 55,54), 2016an baino 322,1 gutxiago.

- Ikusten denez, Zerbitzuan kanpoan baino dokumentu gehiago itzultzen dira, baina orrialde kopuruari dagokionez, kanpoan gehiago itzultzen dira. Hori itzulpen lanak banatzeko erabiltzen den politikaren ondorioa da. Politika horren arabera, dokumentu laburrak Zerbitzuan

- Se han recibido 115 documentos menos que en 2016 (una bajada del 3%).

Del total de 5.361 documentos, se han traducido en el servicio 3.694 (el 68,9%).

Se han traducido fuera un total de 1.667 documentos, el 31,1% del total.

- Respecto al número de páginas, en 2017 se tradujeron un total de 13.451,5 esto es, 276,1 páginas menos.

En el servicio se tradujeron 5.980 páginas (el 44,45% del total), 46 más que en 2016. Fuera se tradujeron 7.471,5 (el 55,54% del total), esto es, 322,1 menos que en 2016.

- Una de las cosas que destacan es que en el Servicio se traducen más documentos, pero el número de páginas es mayor fuera. Esto es debido a la política de asignación de traducciones en la que se prima que los trabajos más cortos se hagan en el Servicio y los de longitud media y larga, fuera, con el fin de ser más eficaces en el gasto.

itzultzeko joera dago eta ertainak eta luzeak, kanpoan, gastuan eraginkorragoak izateko.

- Zatiketa erraz batek diosku zerbitzuko itzultzaile batek 4,2 orrialde itzultzen dituela egunero batez beste. Eta honi gehitu behar zaio interpretazio lanetarako behar izan diren orduak (ikusi 2.3 puntua).

### 2.2.1 Batez besteko denbora

Azter dezagun zein izan den itzulpenak egiteko behar izan dugun batez besteko denbora.

Itzulpenen heren bat eskatzen diren egunean bertan egiten dira, beste heren bat hurrengo egunerako, eta % 93,58 astebete edo gutxiago luzatzen dira. % 6,43ek baino ez dute behar izaten aste bat baino gehiago eta beti dira aktak eta luzera handiko dokumentuak.

- Una simple división dice que cada traductor del servicio traduce 4,2 páginas diarias de media. A esto hay que añadir las horas necesarias para las labores de interpretación (ver el punto 2.3).

### 2.2.1 Tiempo medio

Veamos el tiempo medio necesitado para realizar las traducciones.

Un tercio de las mismas se llevan a cabo el mismo día en que se piden, otro tercio para el día siguiente, y un 91,50% tardan una semana o menos. Únicamente un 6,43% tarda más de una semana, y siempre son actas y documentos especialmente largos.

Behar izan diren lanegunak	Eskari kopurua	Ehunekoa (%)
Egun berean	1693	% 36,78
1	1559	% 33,87
2	523	% 11,37
3	247	% 5,37
4	172	% 3,74
5	113	% 2,45
>5	296	% 6,43

### 2.3 Interpretazio saioak

2017an 99 egunetan egokitu da interpretazioa egin beharra, 2016an baino 7 gehiago. Urte honetan 237 lanegun izan direnez (abuztua kontuan hartu gabe), 0,41 bilera laneguneko ematen digu edo, beste era batera esanda,

### 2.3 Trabajos de interpretación

En 2017 ha habido un total de 99 días de reuniones, 7 más que en 2016. Como este año ha tenido 237 días laborables (sin contar agosto), nos da 0,41 reuniones por día laborable o, lo que es lo mismo, 2,09 reuniones



2,09 bilera aste guzti-guztietan.

- Deialdia egin eta gero, 11 bilera bertan behera geratu ziren.
- Bilera gehienak administrazioaren eta sindikatuen artekoak izan dira (planifikazio batzordeak, batzorde parekideak, ...), gero Gobernu Kontseiluak, Klaustroak eta Campusetako batzarrak. Ikastegietako batzarrak ere izan dira, baina oso gutxi.

Gipuzkoako Campusean fakultate bateko batzarretara bakarrik joan izan gara. Arabako Campusean, fakultate batera eta Campuseko batzarretara.

- Saiotara normalean bi interprete joaten dira, eta Gobernu Kontseiluetara eta Klaustroetara, hiru, lanak horrela eskatzen duelako. Guztira, 160 lanaldi izan dira.

Batzuetan, 25 alditan, kanpoko interpreteak kontratatu behar izan dira.

- Interpretazio lanaren zati handi bat dokumentazioa batu, sakon aztertu eta prestatzea da. Lan hau bereziki gogorra da Gobernu Kontseiluaren bileren eta sindikatuekin egiten diren bileren kasuetan, lanaldi oso bat behar izaten du interprete bakoitzak bilera ondo prestatzeko.

Bistakoa denez, interpreteak lan hauek egiten ari direnean ezin dira egon itzulpenak egiten eta, horren ondorioz, zerbitzuaren lanaren gainean eragin handia du eta beharrezkoa izaten da kanpoko enpresetara jotzea.

Asko sakondu barik, esan behar da 150 lanegun behar izan direla bilera horiek prestatzeko, eta 160 interpretazio lanaldietara gehitu beharko ziren.

todas las semanas.

- Se suspendieron 11 reuniones después de haber sido convocadas.
- La inmensa mayoría de las reuniones han sido entre la administración y los sindicatos (comisiones de planificación, paritarias, ...), seguidas por los Consejos de Gobierno, Claustros y Juntas de Campus, y mucho menos, juntas de facultad.

Del campus de Gipuzkoa solo nos llaman desde una facultad. Del campus de Álava, desde una facultad y para las juntas de campus.

- A cada sesión van normalmente dos intérpretes, siendo tres para los casos de Consejos de Gobierno y Claustro, ya que el trabajo así lo exige. En total han sido 160 jornadas de trabajo.

Puntualmente, en 25 ocasiones, ha sido necesaria la contratación de intérpretes externos.

- Una parte importante de la labor de interpretación es la recopilación, estudio detallado y preparación de la documentación que se presenta en la reunión. Esta tarea es muy ardua en los casos de Consejos de Gobierno y algunas reuniones con los sindicatos, siendo necesaria una jornada de trabajo completa para cada una de las intérpretes.

Evidentemente, cuando las intérpretes están realizando estas labores no pueden estar traduciendo, con lo que esta parte del trabajo del servicio queda afectada y es necesario acudir a las empresas externas.

Podemos valorar *grosso modo* en unas 150 las jornadas necesarias para estas labores preparatorias, que deberían ser añadidas a las


- Interpretazio lanak aparteko ahalegin fisiko eta mentala eskatzen du (interpreteak segundo gutxi batzuetan hizkuntza batean dagoena deskodetu eta bestean era koherente batean kodetu behar du) eta interpretazio lanak eskatzen duen esfortzua itzulpengintzak eskatzen duena halako bi dela aintzat hartzen da. Horrela dago jasota Interpreteen Nazioarteko Elkarteak duen bere arau profesionalen artean ([http://aiic.es/textos/8b\\_normas\\_prof\\_tb.html](http://aiic.es/textos/8b_normas_prof_tb.html)).

Grafiko honetan saio kopurua agertzen da .

160 de interpretación propiamente dichas.

- Los trabajos de interpretación requieren de una gran esfuerzo mental y físico (el/la intérprete debe decodificar en pocos segundos el discurso de un idioma y codificarlo coherentemente en otro) y se estima que el esfuerzo que requiere la interpretación es el doble del de la traducción. Así queda recogido por la Asociación Internacional de Intérpretes ([http://aiic.es/textos/8b\\_normas\\_prof\\_tb.html](http://aiic.es/textos/8b_normas_prof_tb.html)).

En el siguiente gráfico aparece el número de sesiones por mes.



### **3. Kostu ekonomikoak**

Kanpoko enpresek egindako lan guztien kostua (itzulpenak eta interpretazioak batuta) hau izan da: **171.837,12 €**. Hileroko batez bestekoa 14.319,76 € dira. 2016. urtearekiko, % 2,25 gutxiago.

#### 3.1 Itzulpenen kostu ekonomikoak

Kanpoko enpresek egindako itzulpenen kostua **155.723,12** eurokoa izan da. Hileroko batez bestekoa 12.976,93 € dira.

#### 3.2 Interpretazioen kostua

Kanpoko enpresek egindako 25 interpretazioen kostua **12.251,25** eurokoa izan da. Lanerdiak **490,05 €** balio izan du, BEZ barne.

### **4. Laburpena**

a) Egin diren lanen kopurua oso altua izan da, bai dokumentuak itzultzeko, bai bileretan interpretazioa egiteko.

b) Itzulpenetan gastatu den dirua % 6,5 jaitsi da, 2016arekin konparatuz.

c) Erabiltzaileen asebetetze maila altua da eta ez dugu jaso kezarik.

### **5. Adierazleen bilakabidea**

Datu estatistikoak ditugun hirugarren urtea izanik, zenbait adierazleren bilakaera aztertu dezakegu. (Oharra: 2010eko urtarileko daturik ez dugu, eta otsailekoak

### **3. Costes económicos**

El coste total de los trabajos realizados por las empresas externas (traducciones e interpretaciones) ha sido de **167.974,37 €**. La media mensual da 13.997,86 €. Respecto a 2016, un 2,25% menos.

#### 3.1 Coste económico de las traducciones

El coste total de las traducciones realizadas por empresas externas ha sido de **155.723,12 €**. La media mensual es de 12.976,93 €.

#### 3.2 Coste de las interpretaciones

El coste de las 25 interpretaciones hechas por empresas externas ha sido de **12.251,25 €**. El coste ha sido de **490,05 €** por media jornada, IVA incluido.

### **4. Resumen**

a) El número de trabajos realizados ha sido muy alto, tanto en la traducción de documentos como en la interpretación en reuniones.

b) El gasto de las traducciones respecto a 2016 ha bajado un 6,5%.

c) El grado de satisfacción de los usuarios es alto y no hemos tenido quejas.


### **5. Evolución de los indicadores**

Veamos la evolución de varios indicadores (Nota: los datos relativos a los dos primeros meses del año 2010 no existen o no son fiables, dado que fue entonces cuando se



ere ez dira oso-osoak, orduan jarri zelako martxan helbide elektronikoa bakarra eta datuak sistematikoki biltzeari orduan ekin geniolako).

puso en marcha la dirección de correo electrónica única para el servicio y se empezó con las estadísticas).


### Mezu kopuruaren bilakabidea




	Ur	Ot	Mr	Ap	Ma	Ek	Uz	Ab	Ir	Ur	Az	Ab
2010	0	778	1217	1006	1252	1411	1543	200	1330	1365	1385	1106
2011	1095	1552	1999	1440	2291	1841	2687	241	1703	1998	2412	1441
2012	1411	1968	1865	1276	2207	2143	2015	309	1853	2115	2015	1651
2013	2771	2329	2536	2017	2750	2662	1628	373	2187	2757	2276	1753
2014	2417	2204	2122	1585	1948	1856	2019	122	2042	2494	1984	1514
2015	1788	1877	2303	1629	2282	2393	2073	233	1891	2201	2573	2038
2016	1480	2708	1848	1877	2442	2226	1736	392	1861	2050	2184	1639
2017	2100	2187	2284	1429	2213	2157	1809	534	1470	2137	2169	1398




### Orrialde kopuruaren bilakabidea (EUZE<sup>n</sup> itzulitakoak)




### Orrialde kopuruaren bilakabidea (kanpoan itzulitakoak)






#### Interpretazioa

#### Interpretación






## 5.1 Gastu ekonomikoak

Kanpoko enpresei ordaindutakoa fakturretatik atera da. Horregatik urte gehiagotako datuak ditugu eta bilakabidea hobeto ikusten da.

## 5.1 Gastos económicos

Dado que lo pagado a empresas externas se encuentra en facturas, se tienen datos de más años y se puede ver mejor la evolución.





## Interpretazioko gastuak

## Gasto por interpretación

